

Gernuarekin erreakzionatzen duen pixoihala.

Goizane Sáenz de la Fuente, Irati Castro, Marta Codesido, Garazi Sainz eta Jon Xabier Basogain.


FUNTSEZKO JARDUERAK.

IOIKAN enpresaren kasuan bezalaxe gurean ere funtsezko jarduera ekoizpena izango da, hau da, manufaktura enpresa izango gara, ireki gabe aldatzeko beharra dutenetz adierazten duten pixoihalak diseinatzeko, beste enpresen laguntzarekin ekoizteko eta entregatzeko betebeharrak dituen.

Aipatu bezala entregatzeko prozesua hiru modutan egingo dugu:

PARTIKULARREN KASUAN:

- a) Denda fisikoa: supermerkatuak eta umeentzako eta nagusientzako dendetara eramango dugu gure proiektua, denda fisikoan edonork erosi dezan.
- b) On-line denda: MRW, Seur edo Correos bezalako enpresa batek eramango dizkio etxera bezeroari on-line dendan egin dituen erosketak.



OSPITALEEN ETA ZAHAR-ETXEEN KASUAN:

Zuzenean eramango
dizkiegu pixoihalak.
Normalean kantitate
handiak eskatzen dituzte
eta horrexegatik

deskontua izango dute.

Gure proiektuak funtziona dezan hiru puntu hauek jarraitu behar ditugu: ekoizpena, arazoak konpontzea eta plataforma edo sareko jarduerak eramatea.

Ekoizpena ez ezik beste guztiak gure kabuz eraman ditzakegu aurrera:

- a) Ekoizpena: kanpoko enpresen beharra dugu. Izan ere, gu ez gara gai pixoihalak ekoizteko eta genuarekin erreakzionatzen duen zinta egin eta bi produktuak batzen dituen azken produktua diseinatzeko.
- b) Arazoak konpontzea: taldean arduradun bat behar dugu guztion jarduerak zuzenduko dituen eta, era berean, guztion kexak eta nahiak entzuteko gai dena. Hots, zuzendaria behar dugu. Bezeroek dituzten arazoak konpontzeko sare sozialak eta webguneko txat zerbitzua erabiliko ditugu; izan ere, gaitasun handia dugu arazoak konpontzeko.
- c) Plataforma eta sareko jarduerak ere guk geuk eramango ditugu: YouTuben eta Snapchaten gure produktua nola ekoizten dugun erakutsiko dugu, Twitter bidez jarriko gara era zuzen eta azkarrean gure bezeroekin. Gainera, aipatutako txat zerbitzuak edozein arazo laguntzeko balio du eta bezeroengandik hurbil egoteko. Era berean, oraindik bezero ez direnen zalantzak argitzeko ere balio du.

Hortaz, gure enpresaren jarduera ekoizpena izango bada ere, oso garrantzitsua izango da enpresaren webgunea eta on-line denda kudeatzeko, mantentzeko eta sustatzeko jarduera.

Know how (ezagutza) ez dugu beste enpresen menpe utziko; haatik guk badakigu zer egin behar dugun, baina baliabideak falta zaizkigu.

